

# ASIER RENTERIA

## **Noiz, nola eta zergatik hasi zinen bateria jotzen?**

Hamalau urterekin pianoa ikastetik bateria ikastera pasatu nintzen. Baneraman denbora idea horri bueltak eta bueltak ematen, eta azkenean naturalki gorputzak eskatzen zidana egin nuen. Agian garai hartan entzuten nuen musikarengatik izango zen, eztaikit.

## **Zein da musikarekin lotzen duzun lehen oroitzapena? Eta bateriarekin lotzen duzun lehena?**

Ez nago ziur oroitzapen zaharrena bada ala ez, baina askotan presente izaten dut amumak anaia eta biok eskolara joateko iratzartzen gintuenean beti abesten egiten zuela. Abesti zelebreekin egiten zuen gainera, 'Tengo un tractor amarillo' eta antzekoekin.

Bateriarekin lotzen dudana lehen oroitzapena urte batzuk beranduagokoa da. Musika eskolara joaten nintzenean, behe-beheko solairutik zetozen soinu ozenekin lotzen dut. Klasea hutsik aurkitu nuen aldietan, noizbait eskuekin jo izan nuela gogoratzen dut, baketak existitzen zirela ere jakiten ez nuenean. Ezinezkoa zen atentziorik ez deitzea eta probatu beharra zegoen.

## **Zeintzuk izan ziren zure lehen musika eraginak?**

Anaiak eta biok gurasoei eskatu genizkien lehen diskak Gatiburen 'Zoramena' eta Ken Zazpiren 'Bidean' izan ziren. Rallatu zirenerarte entzun genituen, eta oraindik gordetzen ditugu. Argitaratu zirenean, musikarekiko nuen erlazioa eboluzionatzen zioan, ikasketa izatetik zerbait gehiago izatera pasatu zen. Zerbait kointzenteagoa izatera pasatu zen.

## **Musika ikasketak egindakoa zara edo zure kasa ikasi duzu?**

Zazpi urterekin pianoa eta hizkuntza musikala ikasten hasi nintzen, hamalau urterekin bateriara pasatu nintzen eta aurrean saxofoiarekin hasi naiz. Badira nire kabuz ikastea gogoko ditudan gauzak, baina atsegin dut klaseak hartzea. Gaur egun zaila egiten zait nire kabuz ikasteko denbora bilatzea. Klaseak hartzeak konstante izatera behartzen nau, eta horrek laguntzen nau.

## **Orain arteko zure musika ibilbidearen laburpena? Ikasketak, taldeak, etab...?**

Urgatz da izan dudana lehen proiektu serioa, baita gaur egun dudana talde bakarra ere. Beste musikari batzuekin jo izan dut, eta sortu izan dugu abesti bat edo beste, baina batik bat Urgatzekin lotzen dut nire ibilbidea.

Beste alde batetik, Arrigurin ekoizle eta soinuari lanak egiten ditut, eta gaur egun Urgatzekin batera musikari bezala ditudan bi proiektu handiak dira. Ezin hobeto konplementatzen naute. Arrigurin irudirako musika konposatzeko aukera dut, baita beste talde batzuekin lan egiteko eta bestentzako musika ekoizteko aukera ere, eta Urgatzekin proiektu pertsonalago bat aurrera eramateko aukera daukat.

## **Parte hartu duzun diskoetako erritmoak sortzeko metodo finko bat daukazu? Ikasterako orduan? Zein da musikari gisa konposatu eta ikasteko duzun filosofia?**

Nire kasuan lehendabiziko erritmoa beti inkontzientea izaten da. Baina gutxitan betetzen nau, eta beti eman behar dizkiot hamaika buelta erritmo berari. 'Hori' diskorako erritmoak lantzen ibili ginenean ideia ezberdinak grabatu eta entzuteak izugarri lagundu zidan. Abestia kanpotik begiratu eta zerk funtzionatzen zuen eta zerk ez erabakitzeke. Oso argi genuen erritmo berriak esploratu nahi genituela, eta denbora nahikotxo eman genuen horretan. Pluralean diot taldekoekin batera egin nuen ariketa izan zelako. Ziurrenik hori da ikasteko dudak filosofia hoberen definitzen duena. Norbait alboan izateak neure burua bultzatzera eramaten nau eta oso lagungarria egiten zait edozer sortzerako orduan.

## **Teknikoki fina izatea ez da nahikoa, aspektu psikologiko eta humanoak garrantzia handia dute gure ogibidean, nola lantzen dituzu azken hauek?**

Ezin dut ulertu musika alde emozionalik gabe. Teknikoki fina izatea errekurtsu moduan ulertzen dut. Idazlearentzat irakurtzetik hitz edo espresio barriak ikastea izan daitekeen moduan. Taula gainera igotzean edo disko bat grabatzean zerbait kontatzeko egiten dut, helburua entretenitzea edo zerbait sakonagoa bada ere, eta zerbait hori norbaiti helarazteko. Horretarako teknikoki ona izatea baino zerbait gehiago behar da, transmititzen jakin behar da eta hori ere ikasi eta landu egiten da. Norbere gorputza ezagutzea musikaren parte da.

## **Zein musika entzuten duzu inspirazio iturri bezala edo gozamenerako?**

'22, A Million' (Bon Iver), atera berri den 'Village' (Jacob Banks), 'We Move' (James Vincent McMorrow), 'Toki-On' (Nerabe), 'Thinking in Textures' (Chet Faker), Bomba Estereoren lehen albumak, 'Dancehall' (The Blaze), 'Good Thing' (Leon Bridges)... azkenaldian buklean jartzean ditudan diskoak dira.

## **Euskal Herrian egindako musikaren artean eragin zaituzten hiru disko aipatzerik bai?**

Kurariaren 'Kuraia', Itoizen 'Ezekiel' eta Berri Txarrak 'Jaio.Musika.Hil'. Hiru aro ezberdinetan entzun ditut eta guztiek erakutsi didate momentu horretan bilatzen nuenarenganako bidea.

## **Euskal eszenako hiru bateria-jole? Zergatik?**

Felix Willis Drummond-ekin ezagutu nuen, baina gaur egun hamaika proiektutan jotzen du. Indarra eta irmotasuna transmititzen dizkit; Héctor Bardisa behin bakarrik ikusi dut zuzenean jotzen (izatez bere izena googleatu dut oraintxe bertan nor den jakiteko) Ainara LeGardonen taldekide gisa, eta bere transmititzeko modua eta bere erritmo inposibleak grabatuta gelditu zitzaizkidan; Mikel Abrego Anari taldearekin ikusi nuen lehen aldiz eta abestien dinamikak kontrolatzeko eta manipulatzeko duen gaitasunak flipatu ninduen.

## **Musikaren historian sortu diren diskoetako zeinetan gustatuko litzaizuke parte hartu izana?**

2013. urtean Oreka TX-ek 'Silex' diskoa atera zuen Kalakanekin batera, lehendabizikoz entzun nuenean bost aldiz entzun nuen segidan arnasa hartu aurretik. Oso proiektu interesgarria eta dibertigarria iruditzen zait. Erritmikoki konplexua eta melodikoki oso fina. Horretaz gain, zuzenekoak antzerki ikuskizunarekin batera eraiki zuten. Gernikan ikusteko aukera izan nuen eta "neuk be haur gudot egon" pentsatu baino enuela egiten gogoratzen dut.

## **Zeintzuk izan dira zure bateria-jole fetitxeak?**

Bateria jotzen hasi nintzenean Red Hot Chili Peppers-eko Chad Smith-ek flipatu egiten ninduen. Bere kantuak jotzen saiatzen nintzen (bertsio sinple eta kutre bat jotzea bakarrik lortzen nuen noski) eta bere break-ak eta erritmo dantzarriak imitatzen saiatzen nintzen.

## **Ametsik baduzu buruan? Zeintzuk dira zure gertuko helburuak?**

Nire ametsa musika nire ogibide bihurtzea da, eta Arrigurin horretarako tokia aurkitu dut. Nire helburua eskuartean ditudan proiektu handi bi horiekin, Urgatz eta Arrigurirekin, nire interesak eta erronkak betetzea da.

## **Bateria-jole fin batek zein ezaugarri eduki behar ditu zure ustez?**

Buruan zein tripetan duen hori kanporatzen eta azaltzen jakin behar du (eguneroko bizitzan lotsatia bada ere). Komunikaziorako gaitasuna ere oso garrantzitsua da, taldekideekin ideiak eztabaidatzeko. Baina garrantzitsuena entzuten eta sortzen ari zaren piezaren beharrianak irakurtzen jakitea da.

## **Musikaren inguruan inoiz galdetu ez dizuten zerbaiti erantzuna eman nahi diozu? Orain duzu aukera....**

Elkarrizketetan askotan aipatzen da musikaren prekarietatea eta Euskal panoramaren egoera, baina inoiz ez da arazoaren sakoneraz hitz egiten. Gure mikro-ekosistema honetan musikaz bizitzea zaila barik, ezinezkoa dela argi dago. Eta baten bat lortzetik gertu badabil, susmoa daukat arin erortzen dela errezkerian eta publikoak nahi duena eskaintzen. Eta are gehiago, euskeraz egiten duten taldeetan. Beste alde batetik, mundu mailan musikaren industrian berezkoak eta ezinbestekoak diren figurak, Euskal Herrian ez dira ia existitzen. Ekoizlearena adibidez. Zorionez hau aldatzen doa, eta zeresan handia izango du bai gurean sortuko diren musika korranteetan, baita produktu finala inguratzen duen edozerren duintzean.